

**HERRITARREN
BATZARRAK
EGINDAKO
GOMENDIOEI
ERANTZUNA.**

Konpromisoak

ARGITZEN

*Energia trantsizioaren
norabidea adosten*



AURKIBIDEA

ARGITZEN – HERRITARREN BATZARRAK EGINDAKO GOMENDIOEI ERANTZUNA	4
TESTUINGURUA	4
GOMENDIOAK ETA ERANTZUNAK	7
ERANTZUNAK ETA KONPROMISOAK	9
01 GOMENDIOA	9
02 GOMENDIOA	12
03 GOMENDIOA	15
04 GOMENDIOA	19
05 GOMENDIOA	23
06 GOMENDIOA	26
07 GOMENDIOA	29
08 GOMENDIOA	32
09 GOMENDIOA	34
10 GOMENDIOA	37
11 GOMENDIOA	40
PROZESUAREN SUSTATZAILEAK – MANDATU-ORGANOKO ERAKUNDEAK	42
BABESLEAK	42
PROZESUARI ATXIKIMENDUA ADIERAZI DIOTEN ERAKUNDEAK	42

ARGITZEN – HERRITARREN BATZARRAK EGINDAKO GOMENDIOEI ERANTZUNA

Debagoiengan, 2026ko uztailaren 9an

Dokumentu honek Argitzen - Debagoieneko Herritarren Batzarreko kideek aurkeztutako 11 gomendioei erantzunez mandatu-organoak hartutako konpromisoak jasotzen ditu. Izan ere, gomendio horiei ahalik eta hobekien erantzuteko eta jasotakoa aurrerantzean ere modu eraginkorrean bideratzeko betebeharra hartu du bere gain.

Ezer baino lehen, organo honek eskerrak eman nahi dizkie herritarren batzarrean parte hartu duten herritarrei, erakutsitako konpromiso eta lanagatik, bai eta bertan adostutako gomendioak eskura jartzeagatik ere.

Hartutako konpromisoak banan-bana azaldu aurretik eta horiek hobeto ulertzeko, testuinguruan kokatuko dira.

TESTUINGURUA

Trantsizio energetikoaren erronka Debagoiengan

XXI. mendeak, baina, erronka berri, global eta konplexuak ekarri ditu, eskualdeko bizitzan eta ongizatean eragin handia izango dutenak; ondorioz, eskualdea eta gizartea bera egoera berrira egokitu beharko dira. Hainbat erakunderen azterketek eta datuek adierazten dutenez, agerian da mundu mailako larrialdi klimatikoa dela, erronka eta arazo konplexu guztien artean, gure eguneroko bizitzaren esparru guztiak zeharkatu eta baldintzatuko dituen. Hortaz, larrialdi klimatikoaren inguruan hurrengo 10 urteetan hartzen diren edo hartzen ez diren erabakiek baldintzatuko dute munduaren etorkizuna. Izan ere, larrialdi klimatikoak iraunkortasuna erdigunean jarri du eta garapen eredia berrasmatzera bultzatu du.

Egoera globala izan arren, Debagoiena iraunkor bateranzko trantsizioa gauzatzea erronka handia da eskualdearentzat. Erronka horri lankidetzaren bitartez erantzuteko premisa bultzatu nahi izan du hasieratik mandatu-organoak. Helburua da erakunde publikoek, eragile ekonomikoek, ezagutza-eragileek eta gizarteak, oro har, elkarrekin jardutea; betiere, diagnostiko eta agenda partekatu bat oinarri hartuta, Debagoieneko arazo konplexuei irtenbidea bilatzeko ahaleaginean.

Testuinguru horretan hain zuzen ere, kokatzen da - Argitzen - deliberazio-prozesua eta Herritarren Batzarra.

Zergatik Deliberazio-Prozesua?

Gizartearen erronka konplexuei parte-hartetik eta adostasunetik erantzuteko gogoeta partekatua da deliberazioa. Deliberazio-prozesuak kultura politiko eta komunitarioa berritzeko bidea ematen digu. Gainera, berrikuntza-prozesuak esploratzeko aukera eskaintzeaz gain, lankidetzarako eta kooperaziorako tresna berriak garatzen ditu; horrez gain, elkartasun nahiz ardurakidetasun balioak sustatzen ditu Debagoiengan osatzen dugun eragile guztion artean, horrekin guztiarekin eskualdearen kapital soziala sendotuz.

Asmo horri jarraiki, Debagoiena 2030eko (D2030) Gobernu Batzordeak eskualdean trantsizio energetikoaren inguruko deliberazio-prozesu bat —herritarren batzarra— egitea proposatu zuen.

Proposamen hau bideratzeko arrazoiak honako hauek izan ziren:

1. Energia eskualdearen etorkizuneko bizigarritasunaren oinarri bat delako: garapen ekonomikoa, lurralde antolamendua eta oreka, herritarren bizi baldintzak...
2. Arlo ezberdinetako eragile eta herritarrei eragiten dielako: administrazioak, enpresak, lehen sektorea, herritarrak...
3. Eskualdearen etorkizuna baldintzatuko duten erabaki estrategikoak hartu behar diren momentu historiko baten gaudelako.
4. Elkarriketa eta lanketa hori bideratzeko deliberazio-prozesua tresna egokia izan daitekeelako.

Hortaz, energia trantsizioa bezalako erronka konplexu baten aurrean, komunitatea (askotariko eragileak eta herritarrak) ahalduntzeko eta elkarrekin oinarrizko adostasunetara iristeko, herritarren batzarra bide egokia zela adostu zen.

Lankidetzak konpartitua oinarri

Proposatutako deliberazio-prozesuak badu besteengandik bereizten duen ezaugarri bat: lankidetzazko gobernantzatik sustatu dela, arazo konplexu bati eremu publiko, pribatu eta komunitarioaren bidetik erantzuteko xedez. Ildo horretan, ekimenaren bultzatzailea ez da erakunde publikoa soilik izan.

Testuinguru horretan, 2024ko abenduan, mandatu-organoa osatzen duten 18 eragileek, "Debagoienean, trantsizio energetikoaren inguruko deliberazio-prozesua burutzeko lankidetzak hitzarmena" sinatu zuten.

Dokumentu marko horretan, horrela definitu da deliberazio-prozesua: "Prozesu deliberatiboa eskualdeko eragile publiko, pribatu, komunitario, eta orohar, herritarrekin energia trantsizioaren inguruan burutuko den prozesua izango da. Gaiari dagokion informazio zehatz eta egokitik abiatuta Debagoienean gertatu behar den trantsizio energetikoaren aukera ezberdinak aztertu eta ebaluatzea izango duelarik oinarri."

Honako helburuak lortu nahi dira deliberazio-prozesuaren bidez:

- Energiaren alorrean helburu amankomunak ezartzea kontsentsu zabalen bitartez, eta egiteko modu berri bat abiatzea.
- Debagoieneko eskualdean herritar eta eragileak ahalduntzea, energiaren afe-
ran beren ardurak hartuz.

Eskualdeko hainbat eragilek alde aurretik burututako aurre-fase baten ostean sinatu zuten hitzarmena. Fase horretan adostu zuten, eskualdeak energia trantsizioaren bidean bizi duen dilema eta bere korapiloak askatzeko asmoz, Debagoieneko Herritarren Batzarra egitea.

**Eragileek adostutako
dilema**

“Debagoiena energia kontsumo handiko eskualdea da, besteak beste ehun industrialak eskualdean duen garrantziarengatik eta bizi ereduarengatik. Dagoeneko eraldaketa energetiko, ekologiko, sozial eta ekonomikoa gertatzen ari da. Debagoieneko eskualdeak garapen eredu iraunkor baterako bidea bultzatu beharko du, eta horrek kontsumo energetikoa gutxitzea eta energia berriztagarrien garapena ekartzen du.

Baina kontsumo energetikoa gutxitzeak ehun industrialak murriztu dezake eta bizi baldintza eta ereduak eraldatu. Era berean, energia berriztagarrien eskala handiko proiektuen garapenak biodibertsitatean eta landalurrean eragin dezake. Horren ondorioz, kontsumo energetikoaren murrizketa eta eskualdean energia berriztagarriak zein mailatan garatu beharko lirartekeen definitu beharko da, alegia, eskualdeak izango duen dependentzia energetiko maila.

Halaber, eraldaketa hau egiteko moduak desorekak areagotu ditzake pertsona, erakunde, herri eta lurralde ezberdinen artean.”

Herritarren Batzarra

Herritarren batzarra Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) zehaztutako praktika onen printzipioetan oinarrituta definitu eta bideratu da.

Batzarrean ausazko zozketa bidez hautatutako 47 debagoienatarrek parte hartu dute 2025eko urriaren 18an eta 25ean, eta azaroaren 8an, 22an eta 29an egindako saioetan. Bertan, informazioa jaso, gogoeta partekatu eta, luzatutako galderari erantzuteko, gomendioak adostasunez onartu dituzte.

Argitzen – Herritarren Batzarra - GALDERA:

Zein ekintza edo aldaketa burutu beharko dituzte Debagoieneko tokiko eragileek energia kontsumoa murrizteko eta energia berriztagarrien garapenerako?

Galdera honi erantzuterako orduan, honako irizpideak hartu dira kontuan:

- Debagoieneko eskualdearen ehun industrial eta bizi baldintza eta eremuan duen inpaktua.
- Debagoieneko eskualdearen dependentzia energetiko maila.
- Energia berriztagarriek biodibertsitate eta landalurrean izan dezaketen inpaktua ahalik eta txikiena izatea.
- Ahalmen eta erantzukizunen arteko proportzionaltasuna pertsona, erakunde, herri eta lurralde ezberdinen artean.

GOMENDIOAK ETA ERANTZUNAK

Herritarren batzarrak galderari erantzuten dioten 11 gomendioak mandatu-organoaren esku utzi ditu, azken honek egokien irizten dion moduan baloratu eta erantzun diezaien. Izan ere, organo honek herritarren batzarretik ateratako gomendio-sortari bide emateko konpromisoa hartu zuen, eta hitzarmenean bertan honela jaso zen: *“Bide emateak ez du bere horretan burutzea esan nahi, baizik eta aztertu eta bideratu dadila, eta erantzun bat eman dakiola”* (hitzarmenaren bosgarren klausula).

Ondoren, gomendioei erantzuteko hartutako konpromisoak aurkeztu aurretik, oinarritzkoak diren beste printzipio hauek ere balioan jarri nahi ditu mandatu-organoak:

- Herritarren batzarrak gomendioak mandatu-organoaren esku jarri ondoren, honek gogoeta sakona egin du konpromisoak adostu aurretik. Gomendioei koherentziaz erantzuteko, guztien arteko oreka eta osotasuna bermatu nahi izan du. Horregatik, ekintza horiek gauzatzeak dakarren konplexutasuna aztertu ostean, epe labur, ertain zein luzera begirako konpromisoak aurreikusi ditu, datorren legegaldian ere bideratu daitezzen. Hortaz, konpromiso horien betetze-mailaren berri herritarren batzarrari 2027ko lehenengo sei hilekoan ematea aurreikusi bada ere, epe luzera ere horiek gauzatzeko eta jarraipena egiteko konpromisoari eusten zaio, sor daitezkeen aldaketen aurrean egokituz. Helburua da, azken batean, eskualdean esanguratsuak izango diren emaitzak eta inpaktuak lortzea.
- Gomendioei lotutako ekintzek berriazko diru-ekarpenik edo bestelako baliabiderik eskatzen dutenean, hala adierazi da testuan. Nolanahi ere, konpromiso guztien baitan aurreikusi da haiek gauzatzeko beharrezkoa den bideragarritasun-azterketa egitea, urrats hori ezinbestekoa baita.
- Lankidetzaz zabalean gauzatzeko prozesua izan da hau. Hain zuzen ere, eremu publiko, pribatu eta komunitarioko kideek osatutako mandatu-organoa arduratu da prozesua sustatzeaz eta bermatzeaz. Abiapuntuko filosofiari eutsiz, aurrerantzean ere ezinbestekotzat jotzen da eragile guztiek lankidetzazko bide beretik aritzea eskualdeko erronkei erantzuteko, bakoitzak bere gain hartuta dagozkion ardurak.

Herritarren batzarrak adostutako 11 gomendioak:

1. Instalazio fotovoltaikoen kudeaketarako zerbitzu publiko integrala ematea.
2. Instalazio fotovoltaikoen sustapena.
3. Energia berriztagarrien azpiegiturak aztertzea herritarren iritzi eta ekarpenak erdigunean dituzten prozesuen bidez.
4. Eraikinak (publikoak zein pribatuak) energia eraginkortasun handiagorantz eraldatzea.
5. CO2 isuriak murriztea garraio publikoan.
6. Debagoieneko autoaren mugikortasun alternatiborako sarea sortzea eta ibilgailu publikoen elektrifikazioa lortzea.
7. Neutraltasun energetikoa industrian.
8. Prestakuntzarako eta kontzientzia-hartzeko hezkuntza metodoak.
9. Tokiko produktuen kontsumoa bultzatzea eta zabaltzea.
10. Informazioa komunikabideen bidez.
11. Hiri aterpe klimatikoak sortu.

GOMENDIOA	KONPROMISOA	BALIABIDE GEHIGARRIAK	EPEAK
1	Ekarpenekin onartu da	✓	2026tik hasi eta hurrengo legealdia
2	Ekarpenekin onartu da	✓	2026tik hasi eta hurrengo legealdia
3	Ekarpenekin onartu da	✓	2026-2028
4	Ekarpenekin onartu da	✓	2026tik hasi eta hurrengo legealdia
5	Ekarpenekin onartu da	✓	2026-2028
6	Ekarpenekin onartu da	✓	2026tik hasi eta hurrengo legealdia
7	Ekarpenekin onartu da	✓	2026-2028
8	Ekarpenekin onartu da	✓	2026tik hasi eta hurrengo legealdia
9	Ekarpenekin onartu da	✓	2026tik hasi eta hurrengo legealdia
10	Ekarpenekin onartu da	✓	2026tik hasi eta hurrengo legealdia
11	Ekarpenekin onartu da	✓	Udalen plangintzen arabera

* “Ekarpenekin onartzeak” esan nahi du mandatu-organoak -bertako eragileek- ekarpenak egin dizkiola gomendioari (aldaketa teknikoak, epeak zein zehaztapenak), bideragarriagoa edo osoagoa izan dadin; horrela, azken dokumentuak prozesuko kide guztien ikuspegia jasoko du.

* Mandatu-organoaren konpromisoak, oro har, aztertzeko, bideratzeko edo koordinatzeko konpromisoak dira. Konpromiso bakoitza gauzatzeko betebeharrak exekutiboak, berriz, “konpromisoa gauzatzeko arduraduna” izango du. Momentuz, konpromiso instituzional gisa ulertu behar da eta dagokionean, konpromisoak gauzatzeko, kasuan kasu, dagokion plangintza-prozeduraren bidez egiaztatu beharko da.

* Hartutako konpromisoen jarraipena egiteko mugarrak 2027ko lehen sei hilabetean jarri da; orduan, herritarren batzarrari egindako urratsen berri emango zaio.

INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOEN KUDEAKETAREN PROZESU GUZTIAN ZERBITZU INTEGRALA ESKAINTZEA.

Ardatza

Energia berriztagarriak sortzeko baldintzak.

Gaia

Energia fotovoltaikoa.

Deskribapena

Herritarrek edo enpresa txikiek instalazio fotovoltaikoak martxan jarri ahal izateko zerbitzu publiko integrala ematea.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 1.1. Informazioa eta bitartekaritza.
- 1.2. Azterketa teknikoa.
- 1.3. Bideragarritasun azterketa.
- 1.4. Baimenak eta legalizazioa.
- 1.5. Dirulaguntzen kudeaketa.
- 1.6. Proiektua eta exekuzioa.
- 1.7. Soberakinen azterketa eta banaketa sistema definitzea.
- 1.8. Urtean behin herritarrei kontu-ematea eta inaktuaren berri ematea.
- 1.9. Zabalpena eta publizitatea ondo landu herritar orori irisgarri izan dadin.
- 1.10. Instalakuntzetatik sortzen diren hondakinen berri eman eta kudeatzea.
- 1.11. Bulego fisiko eta herririk herriko zerbitzua (ibiltaria izan daiteke) emango du eta bestelako zerbitzu digitalak ere izango ditu.

Aurrekariak**INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK (FV):**

- Udaletxeak plakak jartzen ari dira teilatu publikoetan.
- 5 energia berriztagarrien komunitate (EBK) daude eskualdean eta hainbat FV instalazio daude martxan edo garapenean.
- Hainbat enpresen eta bizilagunen komunitateen teilatuetan, autokontsumo zein bestelako ereduak FVak jartzen ari dira.

INSTALAZIO FV-en SUSTAPENA: DIRU LAGUNTZAK, HOBARIAK ETA BESTELAKOAK.

- Garapen Agentziak ETE-ei (enpresa txiki eta ertainei) laguntzak eskaintzen dizkie FV instalazioen azterketa teknikoak egiteko. Aramaion, enpresa baten bidez egin ohi izan da.
- Hainbat udalek hobariak ematen dituzte plaka fotovoltaikoen instalazioengatik.
- Euskal Energia Erakundeak (EEE) laguntzak eskaintzen ditu FVak instalatzeko.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) diru laguntzak eskaintzen dizkie EBKri (Energia Berriztagarrien Komunitatea).
- Fagor taldeak EBKi ekarpen ekonomikoa egiten die, biztanleko 10€. Laguntzaren gutxienezko kopurua 50.000€ izanik.

*FVetatik sortutako energia kopuruaren garapena 2016-2023 bitartean %400 igo da, baina hau eskualdeko teilatu potentzialaren %0.000075 besterik ez da.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Mandatu-organoak ulertzen du zerbitzuak integrala izan behar duela, hainbat eragileren arteko lankidetzan (publiko-komunitarioa) eraikia, eta ez soilik publikoa. Lankidetzaren horretan parte hartuko duten eragileen artean definitu beharko da zerbitzu integral horren markoa.
- 1.2. eta 1.3. ekintzari dagokionez ondo aztertu beharko da zerbitzu integralak zer eman edo eskaini dezakeen. Izan ere, horrelako lanak ematen duten espezialistak badira.

- 1.5. ekintzari dagokionez, egoki ikusi da dirulaguntza eskaerak bulego horretatik bideratzea.
- 1.6. ekintzari dagokionez ez da egingarria ikusten. Horretarako baliabideak eta ezagutza duen enpresa baten bitartez egin beharko litzateke.
- 1.8. ekintza interesgarria ikusi da.
- 1.11. ekintzari dagokionez, zerbitzuaren kosteak ondo aztertu beharko dira ziurtatzeko garatu ahal izango dela.

Konpromisoak

- 1.1.K: 1. eta 2. gomendioetan jasotakoari erantzunez, mandatu-organoak uste du Debagoienak instalakuntza fotovoltaikoetarako zerbitzu publiko - komunitario integrala garatu behar duela. Zentzu horretan, zerbitzu horren nolakotasuna eta bideragarritasuna (tekniko eta ekonomikoa) Mankomunitatea, Suradesa, komunitate energetikoak, eta bestelako eragileekin batera aztertzeko konpromisoa hartu du. "Zerbitzu integrala" kontzeptuak indarra hartzen du gomendio honetan eta mandatu-organoak beharrezkoa ikusten du nolakotasun horren azterketan "integrala" aldagaia ondo definitu eta adostea.
- 1.2.K: Eskualde eskalako merkaturatzailearen aukerak aztertzea.

Inplikaturako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA: Mankomunitatea.

GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:

- Suradesa
- Energia Komunitateak
- Goiener
- Landa Garapen Elkarte (LGA)
- Bestelako eragileak

Epeak

1.1.K: 2026tik hasi eta hurrengo legealdia.

1.2.K: 2026tik hasi eta hurrengo legealdia.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOEN SUSTAPENA.

Ardatza

Energia berriztagarria sortu.

Gaia

Instalazio fotovoltaikoen sustapena.

Deskribapena

Instalazio Fotovoltaikoen sistemaren bidez energia lortzeko beharko diren kokapen egokienak (teila-tuak, aparkalekuak, enpresak, aurrez gizakiaren eraginez eraldatu diren lur-eremuak, terreno partikularrak) identifikatzeko azterketa egin enpresa publiko baten bidez, beti ere landa-eremuak eta nekazaritzara bideratutako eremuak errespetatuz.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 2.1. Beharrezko azpiegiturak eta sortzen den energia kudeatzeko enpresa publiko bat sortu.
- 2.2. Enpresa honen zerbitzuak desberdinak izan beharko lirateke enpresa pribatu eta partikularrentzako.
- 2.3. Enpresa honek aztertu beharko luke zein kokapen diren egokienak eskualdean instalazio hauek jartzeko. Horretarako plan bat egin beharko luke eta plan horretan hainbat helburu neurgarri ezarri.
- 2.4. Azterketa horretan energia sorkuntzaz haratago, apustu hau egiteak herritarrei edo enpresei sortuko lieken onura ekonomikoa kuantifikatu beharko luke, hori pizgarri izan dadin.
- 2.5. Enpresei herrietako komunitate energetikoetan bazkide-laguntzaile izatea eskatu.
- 2.6. Enpresa handiei teilatuen lagapenak egiteko eskatu.
- 2.7. Soberakinak kudeatzeko biltegitratze-sistemak sortu eta soberakin horiek enpresa publikoari bideratu, beste herritarrek erabili ahal ditzaten.
- 2.8. Sortutako energia enpresa publikoaren bitartez kudeatu.
- 2.9. Ezagutza duten adituen laguntzarekin bestelako sistema fotovoltaikoak aztertu eta ikerketa jarraitu bat egin ikertzaile talde bat sortuz.
- 2.10. Aditu hauek plakak ekoizteko erabiltzen den energia eta isurtzen den CO2 kopurua aztertu beharko lukete eta hau murrizteko, irtenbideak bilatu beharko lituzkete material alternatiboak erabiliz, adibidez.
- 2.11. Lehenetsi erabilerarik ez duten lur-eremuak. Adibidez: autopistetako malda bertikalak edo AHT-a sortzean gelditzen diren bazterrak.
- 2.12. Instalazioen bizitza amaitzen denean erabilgarri ez diren materialei irteera bat bilatu. Birziklapena?

Aurrekariak

1. gomendioan jasotakoa.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Mandatu-organoak ontzat ematen du eskualdean energia fotovoltaikoa sustatzeko zerbitzu integrala bultzatzea; ez, ordea, horretarako enpresa publiko bat sortzea. Izan ere, funtzio hori betetzen duten bestelako erakundeak egon daitezke eskualdean; horregatik, egokiago deritzo gaur egungo zerbitzuak (Suradesa eta Energia Bulegoarenak) eta horiek indartzeko aukerak aztertzeari.
- Mandatu-organoak uste du instalazio fotovoltaikoen garapena energia berriztagarrien garapenaren estrategia orokor baten barruan kokatu beharko dela. Hori horrela jaso dago 3.2.K konpromisoan.
- 2.3. ekintzari dagokionez, instalazio fotovoltaikoak ezartzeko kokapenen azterketa egitea egoki ikusi da. Plan bat garatzea berriz ez da beharrezkoa ikusten.
- 2.8. ekintzari dagokionez, energia kudeaketa konplexutasun handiko ariketa dela uste du mandatu-organoak.
- 2.11. ekintzari dagokionez, lehengoratzeko ekologikoa lehenetsi beharra dago, Europako araudiak horrela eskatzen duen kasuetan.

Konpromisoak

1. gomendioan jasotakoa.

Inplikaturako eragileak

1. gomendioan jasotakoa.

Epeak

1. gomendioan jasotakoa.

Baliabideak

1. gomendioan jasotakoa.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN AZPIEGITURAK AZTERTZEA HERRITARREN IRITZI ETA EKARPENAK ERDIGUNEAN DITUZTEN PROZESUEN BIDEZ.

Ardatza

Energia berriztagarria sortu.

Deskribapena

Energia berriztagarrien ezartzearen proposamen ezberdinak eta aukera berriak plazaratzea eta, herri partaidetza eta prozesu demokratikoen bidez erabakitzea.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak****Herri partaidetza bideratzeko informazio bilketa, eztabaida eta erabakiak hartzea:**

- 3.1. Esparru ezberdinetako teknikarien, beharrezkoak diren espezialisten, ekologisten eta lehen sektoreko langile eta bizilagunen ahotsak kontutan izatea erabakiak hartu aurretik.
- 3.2. Herritarrek erabaki ahal izateko informazioa ematea.
- 3.3. Makro instalazioen mugak zeintzuk diren eztabaida ireki.
- 3.4. Herri galdeketa egitea, bereziki eragiten dien pertsonen edo inpaktu zuzena edo zeharkakoa dutenen artean, herritarren onarpena bilatzeko eta bermatzeko.

Fotovoltaikoaz gain, egon daitezkeen sistema ezberdinen azterketa egitea eta proposamen zehatzak lantzea bailara mailan:

- 3.5. Hidrogeno berdea sortzeko plantak eraikitzea.
- 3.6. Industriako beroa aprobetxatzeko proiektuak sustatu eta batera termikoak garatzea.
- 3.7. Eoliko sistema berriak aztertzea (Errota hegalik gabe).
- 3.8. Aerotermia
- 3.9. Geotermia.

Lehen sektoreko langileei konpentsazioak zehaztea.**Aurrekariak**

- Udal batzuk ari dira geotermia eta biomasa garatzen eraikin publikoetan.
- Hidrogenoaren erabilera oraindik garapen bidean dago baita ikuspegi zientifikotik ere.
- Industria-beroa aprobetxatzeko ekimenak badaude, adibidez, Ederlan-Hirekin eta Ederlan-Aretxabaletako Kiroldedia.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Mandatu-organoak, herritarren parte-hartzea azpiegitura zehatzen inguruan baino, lurralde estrategian (Lurralde Plan Sektoriala eta Lurralde Plan Partziala) kokatzen du.
- 3.1. ekintzari dagokionez, mandatu-organoak egoki ikusi du errealitate ezberdinen ahotsak jasotzea eta baita, ponderazio aukerak aztertzea ere - ez esklusibitate aukerak -, urriak diren kolektiboen ahotsa ez desagertzeko.
- 3.3. ekintzari dagokionez, eztabaida irekitzea begi onez ikusi da, baina eztabaidaren mugak ere aldeztu aurretik definituz, bereziki frustraziorik sortu ez dadin esku-duntza falta dagoen kasuetan.
- 3.4. ekintzari dagokionez, herri galdeketa egoki ikusten badira ere, kasuan kasu aztertu beharko litzateke, gaia, eskuduntza eta herri galdeketa helburu eta ondorengoak definituz. Hau oso garrantzitsua da herritarrengan frustraziorik ez sortzeko. Era berean, galdeketa eginez gero, ez lirateke sektore konkretu batzuei mugatu behar, baizik eta irekiak beharko lukete - aurreko erantzunean jasotako ponderazio sistemarekin -, inpaktuak jasaten dituzten sektore guztiak jasoz, bai inpaktu positiboak eta baita negatiboak ere.

- 3.5. eta 3.7. ekintzei dagokionez, interesgarria bada ere, gaur gaurkoz ikerketa garatzea behar duten gaiak dira. Mandatu-organoak ezin du horien inguruko erabakirik hartu.
- 3.8. eta 3.9. ekintzei dagokionez, kontuan hartu behar da horren arazoa askotan sarearen potentzia falta izaten dela, eta sistema horien garapena zaildu egiten duela.
- 3.10. ekintzari dagokionez, mandatu-organoak komenigarritzat jotzen du kalte-ordainak eta konpentsazioak bereiztea. Azpiegitura baten kalte-ordainak partikularrei zuzenduak dira; konpentsazioak, ordea, sektoreari eragiten diotenak dira, sektorearen bideragarritasuna bermatzeko (hala balegokio). Zentzu horretan, egokitzen da inpaktua jasotzen duten sektoreen ondorioen konpentsazioa aztertzea, eta ez soilik lehen sektorearena. Ildo horretatik, konpentsazioek zaurgarritasun-egoera ezberdinak hartu beharko lituzkete kontuan, eta horien arabera garatu. Dena den, konpentsazioen atalak eskualdearen eskumenak gainditzen ditu; beraz, gomendio hau Eusko Jaurlaritzari helarazteko konpromisoa hartu du mandatu-organoak.

Konpromisoak

- 3.1.K: Erantzunetan jasotakoari jarraiki, Debagoieneko Lurralde Plan Partzialaren (LPP) indarraldia amaitzeaz dagoenez eta berrikustea tokatzen denez, prozesu horren garapenean herritarren partaidetza bermatzea egoki ikusi du mandatu-organoak. Hala ere, dokumentu horren idazketa-eskumena ez da eskualdean kokatzen, beraz, mandatu-organoak Eusko Jaurlaritzarekin elkarrizketak abiatzeko konpromisoa hartu du, herritarren batzarraren gomendioak eta eskaerak helarazteko.
- 3.2.K: Mandatu-organoak, izaera ezberdineko eta ahalik eta anitzenak izango diren erakundeak bilduko dituen energia mahaia sustatzeko konpromisoa hartu du. Horretarako, sektore publikokoak ez diren bestelako eragileak (enpresak, energia komunitateak, energian adituak, energia kooperatibak, etab.) egun dagoen mahaira batu beharko lirateke. Energia mahaiaren markoa definitzera konprometitzen da Mankomunitatearekin batera. Energia mahai horren egitekoa, besteak beste, energia berriztagarrietan marko estrategikoa definitzea izango da. Marko horren baitan, energia mahaiak 3.5., 3.6., 3.7., 3.8. eta 3.9. ekintzak aztertu eta baloratuko ditu.
- 3.3.K: (3.10. ekintza) Mandatu-organoak konpromisoa hartu du proposamena Eusko Jaurlaritzara eta Gipuzkoako Foru Aldundira bideratzeko eta horren jarraipena egiteko.

Inplikaturako eragileak

- 3.1.K eta 3.3.K: Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko eta jarraipena egiteko ardura du.
- 3.2.K: Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA: Mankomunitatea.

GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:

- Suradesa.
- Energia Komunitateak.
- Goiener.
- LGE.
- Enpresak.
- Bestelako eragileak.

Epeak

3.1.K eta 3.3.K: 2026tik hasi eta hurrengo legealdia.

3.2.K: 2026-2028.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

ERAIKINAK (PUBLIKOAK/ PRIBATUAK) ENERGIA- ERAGINKORTASUN HANDIAGORANTZ ERALDATZEA (INGURATZAILE TERMIKOAK, INSTALAZIOAK ETA ERABILERA).

Ardatza

Energia kontsumoa murriztea.

Gaia

Eraikin eraginkorrak.

Deskribapena

Eraikin publiko eta pribatuetan energia-eraginkortasuna hobetzea:

- Eraikin eraginkorragoekin energia-kontsumoa murriztea.
- Energia berriztagarriak kontsumituz eta plaka fotovoltaikoak jarriz.
- Espazio komunak sortzea, coworking gisa, banakako kontsumoa murrizteko.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 4.1. Beste gomendio batzuetan aipatzen den aholkularitza publikorako bulegoa sortzea, eraikinen eraginkortasunerako. Gainera, bulego horrek informazio, euskarri, gida, aholkularitza eta bizilagun-komunitateentzako dibulgazio lanak izango lituzke, modu proaktiboan.
- 4.2. Egungo araudia berrikustea, eraikinen energia-eraginkortasunera egokitzeko. Eraikin osoa edo etxe partikularra birgaitzeko eskatzean, obra horretan energia-eraginkortasuna lortzeko beharrezko neurriak sartu behar dira.
- 4.3. Eraikin publikoak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen behartzea. 0. isurketa eta eraikin publikoetan energia berriztagarrien ekoizpena sustatzea.
- 4.4. Kreditu-lerroak sortzea (abalak, kreditu bigunak...), bai komunitateentzat, bai biztanle gutxiko eta baliabide ekonomiko gutxiagoko herrietako udalentsat.
- 4.5. Coworking lokalak edo espazio publiko handiagoak (liburutegiak, adibidez) eskaintzea, erabilera komunitarioa erraztea eta kontsumitutako energia murriztea.
- 4.6. Energia gutxiago edo modu arduratsuan erabiltzen duten pertsonen hobaria ematea, ebaluatutako etxebizitzaren ezaugarriak kontuan hartuta (zenbat pertsona bizi diren...). Kontsumoaren %10 murrizten dutenek (adibide gisa) hainbat onura lortuko dituzte, hala nola, udal zergen murrizketa.

Aurrekariak

- Suradesa, eraikinen eraberritzeen inguruko aholkularitza zerbitzua eskaini eta diru laguntzak kudeatzen dituen enpresa publikoa da.
- Udal batzuek, eraikinak birgaitzeko hobariak dituzte.
- Coworking espazioak badaude herri batzuetan.
- Birgaitze esperientzia batzuk badira, adibidez: Arrasateko Santa Teresa auzoa modu integralean berritu da Eusko Jaurkitzarekin batera.
- Eskoriatzako bizilagun komunitate batean birgaitze proiektu esperimentala egin da Esnargi (bertako energia komunitatea) eta Goienarren bitartez.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- 4.1. ekintzari dagokionez, dagoeneko Suradesak horrelako aholkularitza eskaintzen du. Hala ere, birgaitzeak bultzatzeko informazio aktibo eta gertukoa oso garrantzitsua dela uste du mandatu-organoak. Horregatik, gaia Suradesa-ra eraman eta lantzea proposatzen da. Azkenik, eta instalazio fotovoltaikoen kasuan aipatu den moduan, mandatu-organoak uste du zerbitzuak publiko - komunitarioa izan behar duela, eskualdeko eragileak lankidetzan aritzea sustatuz.
- 4.3. ekintzari dagokionez, dagoeneko legean jasoa dago.
- 4.4. ekintzari dagokionez, proposamena ontzat eman da. Baita kreditu lerroak emango lituzkeen aukera mixtoa (publiko - pribatua) aztertzea ere. Udalek erakunde horretan parte hartuko lukete, betiere zaugarritasun-egoeran dauden kolektibo finantzaketa-aukerak bermatzeko baino ez.
- 4.5. ekintzari dagokionez, dagoeneko hainbat herritan egiten da.
- 4.6. ekintzari dagokionez, proposamen hau ez da onartu; izan ere, oso zaila da neurtzea, udalek ez baitute energia-kontsumoari buruzko informaziorik. Kontsumoan baino gehiago, obran arreata jartzea egokiagoa dela deritza mandatu-organoak.

Konpromisoak

- 4.1K: Erantzunetan jasotakoa kontuan hartuz, proposamena Suradesara eraman eta bertan hausnarketa prozesua abiatzeko konpromisoa hartu du mandatu-organoak. Hausnarketa hori honako eremuetan gutxienez gauzatu beharko da:
 1. Modu proaktiboan garatzea gomendioan jasotzen diren eskaerak, besteen artean bulegoak auzoetara gerturatzeko aukera.
 2. Energia Aurrezteko Ziurtagiria baliatzea.
 3. Suradesak eskaintzen duen zerbitzua, bestelako eragile batzuenarekin osatu eta zerbitzu publiko-komunitario integrala eskaintzea.
 4. Kreditu-lerroak eskaintzeko formulak aztertzea eta, horren baitan, arreta berezia jartzea zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboengan.

Inplikaturako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA: Suradesa.

GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:

- Energia Komunitateak.
- Udalak.
- Entitate finantzarioak.
- Bestelako eragileak.

Epeak

2026tik hasi eta hurrengo legealdia.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

C02 ISURIAK MURRIZTEA GARRAIO PRIBATUAN.

Ardatza

Energia kontsumoa murriztea.

Gaia

Garraio pribatua.

Deskribapena

Helburua da garraio pribatuaren C02 isuriak eta erregai fosilen dependentzia murriztea eta herri erdigune osasuntsuak bermatzea hurrengo puntuak kontuan hartuta:

- Garraioa lan eta hezkuntza zentrotara desplazatzeko.
- Paketeria banaketa.
- Aisialdiko desplazamenduak.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak****Lana eta Hezkuntza:**

- 5.1. Kontzientziazio planak ezartzea, komunikabide eta sare sozialen bitartez. Garraio publikoaren indartzea erosotasun galera ekiditeko.
- 5.2. Telelana sustatzea, enpresetan telelan plangintzak ezartzea eta beharrezko materialak lortzeko hobariak eskaintzea.
- 5.3. Lana eta hezkuntzarako garraio partekatua erabiltzea.
- 5.4. Garraio pribatuaren elektrifikazioa, beharrezko karga puntuak ezarriz eta finantzaketa laguntza bermatzea.
- 5.5. Mugikortasun planak legez ezartzea eta honekin enpresak pizgarriak eskaintzea. Enpresak helburu neurgarriak ezartzea.

Paketeria banaketa:

- 5.6. Herri bakoitzeko jasotze guneak.
- 5.7. Paketeriaren garraioak elektrifikatu.
- 5.8. Erdigunetara sartzeko guneak araudiekin zehaztu.

Aisialdia:

- 5.9. Garraio partikularrak elektrifikatzeko dirulaguntzak.
- 5.10. Herri erdigunetara sarrerak arautzea.
- 5.11. Aplikazioak garraioak partekatzeko, lanerako zein aisialdirako.

Aurrekariak

- Gero eta enpresa gehiagok du mugikortasun plana eta, ekintzak gauzatzen ari dira (pizgarriak, sentsibilizazioa, ...).
- Telelanerako aukerak areagotzen ari dira pandemia ondoren.
- Garraio partekatuko ekimenak badira, adibidez: Ulma (Ekokilometro), Fagor (Mugi), Polo Garaiakoa.
- Enpresaren autobus partekatua lantokira joateko zerbitzua(k) badira (Ulmaren lan-bus zerbitzua, adibidez).
- Udaletxe gehienek hobariak dituzte ibilgailu hibridoak edo elektrikoak erosteko.
- Karga puntuak ari dira herrietan jartzen.
- Paketeria: Banaketa-enpresa pribatuen ekimenez, jasotze-guneak areagotzen ari dira.
- Hainbat herritan badituzte erdiguneetako mugikortasun-araudiak, eta garatzen ari dira.
- Euskal Energia Erakundeak (EEE) eta Espainiako Gobernuak garraio partikularrak finantzatzeko diru laguntzak ematen dituzte.
- Mankomunitateak eskualde mailako mugikortasunaren plana egin du.
- Gizabidea Fundazioak herri txikien mugikortasun beharren azterketa egin du eta bertan jaso da ekintza proposamenen lanketa.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Gomendioaren deskribapen orokorra ontzat eman da; bideragarria da eta, egun, Debagoieneko herrietan garatzen diren udal-plangintzekin lerrokatuta dago. Debagoieneko herrien egitura kontuan hartuta, garrantzitsua da hiriguneaz gaindiko begirada txertatzea, landa-inguruneko errealitateak aintzat hartuz. Gainera, une honetan Mankomunitatean garatzen ari diren azterketei jarraiki, CO2 isuriak modu esanguratsuan murrizteko eskualde-mailako mugikortasun-planarekin jarraitzea beharrezkoa ikusten du mandatu-organoak.
- 5.2. ekintzari dagokionez, telelana enpresa gehienetan arautu da jada, baita eskualdeko udal batzuetan ere.
- 5.3. ekintzari dagokionez, ondo ikusi da. Ekintza zehaztetik haratago eskualdeko mugikortasun hausnarketa eta plan baten testuinguruan landu beharko da.
- 5.4. ekintza begi onez ikusi arren, garraio pribatuaren elektrifikazioa ez dagokio mandatu-organoari, bere lehentasuna garraio publikoan eragitea baita. Erakunde publiko, pribatu zein komunitarioak ari dira dagoeneko hainbat karga-puntu instalatzen; hedapena, ordea, eskualde mailako azterketa batean landu beharko litza-teke.
- 5.5. ekintza araututa dago eta garatzen ari da ezaugarri konkretu batzuek betetzen dituzten enpresen kasuan. Testuinguru honetan, interesgarri ikusi da industria gune berdineko enpresen eta tokiko administrazio publikoaren arteko mugikortasun planen koordinaziorako espazio bat sortzea.
- Paketeria banaketa ekintzei dagokionez (5.6., 5.7. eta 5.8.), Debagoieneko udalen lehentasuna da erdigunetan oinezkoak lehenestea eta ibilgailuen mugikortasuna murriztea (aparkaleku eta karga-deskarga guneak arautuz), eta horrela ari dira garatzen arau urbanistikoetan. Paketeria garraioa elektrifikatzea ez dago mandatu-organoaren esku, baina joera hori dela kontuan hartuz, berez etorriko dela ondo-rioztatzen da. Mandatu-organotik tokiko kontsumoa indartzeko apustua egiten da, honi baliabideak eskainiz. Ekintza hau 9. gomendioarekin lotu da.

Konpromisoak

- 5.1.K: Eskualde-mailako mugikortasun-estrategia lankidetzan bultzatzeko, eragile desberdinen arteko mugikortasun mahaia sustatzeko konpromisoa hartu du mandatu-organoak. Horretarako, Mankomunitatearekin elkarrizketak abiatuko ditu. Egokitzen jo da mahai horren egitekoetan eta garatu beharreko planean aztertzea herritarren batzarrak proposatutako ildoak, baita udalez udal egiten direnak txertatzeko aukerak ere.

Inplikaturako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA: Mankomunitatea.

GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:

- Energia Komunitateak.
- Enpresak.
- Goiener.
- Hezkuntza eragileak.
- Landa Garapen Elkarte (LGE).
- Bestelako eragileak.

Epeak

2026 - 2028.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

DEBAGOIENENKO AUTOAREN MUGIKORTASUN ALTERNATIBORAKO SAREA SORTZEA ETA IBILGAILU PUBLIKOEN ELEKTRIFIKAZIOA LORTZEA.

Ardatza

Energia kontsumoa murriztea.

Gaia

Garraioa.

Deskribapena

Debagoieneko garraio publiko eta mugikortasun sarearen berrantolaketa egitea eta sare berriak sortzea, garraio publikoaren erabilera sustatzeko. Aldi berean, ibilgailu publikoen elektrifikazioa bideratzea jasangarriagoak izateko eta errepideak garraio hauetara egokitzeko.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 6.1. Diagnostiko bat egitea Debagoieneko mugikortasun beharrak aztertzeko: Ordu-tegiak, maiztasuna, erabiltzaileen kopurua, ibilbideak... Arazoak identifikatzea eta berrantolatzeke plana gauzatzea.
- 6.2. Debagoieneko bidegorriak egitea edo/eta daudenak bukatzea. Honekin lotuta, bizikleten aparkalekuen berrantolaketa.
- 6.3. Bizikleta elektrikoek eta beste ibilgailuak (kotxe elektrikoak, gurpildun aulkiak, patineteak...) mailegu sistema sare publikoa sortzea. Familien autoen kopurua murrizteko eta jasangarriagoa den beste batengatik ordezkatzeko pizgarriak emanez.
- 6.4. Autobus berri guztiak elektrikoak izatea (herribusarekin probak egiten hastea).
- 6.5. Ikasleentzako ibilbide seguruak klasera joateko eta segurtasun arauetan formazioa ematea.

Aurrekariak

- Bidegorri sarearen zati batzuk garatu dira.
- Bizikleta aparkalekuak gero eta gehiago dira.
- 18 autobus hibrido berri erosi berri dira eskualderako, herri-busak oraindik ez dira %100 elektrikoak.
- Udal ibilgailuak ere elektrikoak izateko neurriak bultzatzen ari dira.
- Hainbat herritan "oinezbus" ekimenak bultzatzen dira.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak du gomendio honetan eskatutako hainbat ekintzen eskumen eta ardura.
- 6.1. ekintzari dagokionez, herri diagnostikoak egin dira eta gaur egun Mankomunitatea bi azterketa burutzen ari da, bata garraio publikoaren ingurukoa eta bestea mugikortasun integralaren ingurukoa.
- 6.2. ekintzari dagokionez, herrien arteko bidegorrien eskuduntza GFarena da (eta Arabako Foru Aldundiarena, Aramaioko kasuan). Herri barruko bidegorrien egoerak edota planak, udal bakoitzaren mugikortasun planean txertatzen dira eta informazio hau publikoa da.
- 6.3. ekintzari dagokionez, bizikleta elektrikoek eta bestelako ibilgailuen eskualde mailako mailegu sistema aztertzea egoki ikusi da, eta komunitate energetikoekin batera auto partekatu sistema ezartzea aztertuko da.
- 6.4. ekintzari dagokionez, herribusen kasuan soilik - gainerakoak eskuduntzetik kanpo daude - gaia aztertzea egoki ikusi du mandatu-organoak, teknikoki eta baliabide aldetik bideragarria den ikusteko.
- 6.5. ekintzari dagokionez, dagoeneko herri batzuetan egiten da.

Konpromisoak

- 6.1.K: 5. gomendioaren konpromisoan ezarritakoari jarraituz, plan horretan (mugikortasun plan integrala) integratzea 6. gomendiotik eratorritako eskualde eskalan eta lankidetzan bultzatzeko ekintzak: 1) Herrien arteko bidegorri sarea egiteko edota amaitzeko eskaera Foru Aldundiei (GFA eta Arbako Foru Aldundia) helaraztea eta, 2) Bizikleten edo bestelako ibilgailuen mailegu sistema elkarlanean aztertzea.
- 6.2.K: Udalak konprometitzen dira haien eskumenari lotuta daudelako, honako ekintzak garatzera: 1) Herribusen elektrifikaziorako plangintza eta 2) Herri barruko bidegorri sarea.

Inplikaturako eragileak

- 6.1.K: Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.
- 6.2.K: **KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA:** Udalak.

Epeak

- 6.1.K: 2026tik hasi eta hurrengo legealdia.
- 6.2.K: Udal planetan zehaztutakoaren arabera, dagokionean.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

NEUTRALTASUN ENERGETIKOA INDUSTRIAN.

Ardatza

Kontsumo murrizketa eta energia sorkuntzarako baldintzak.

Gaia

Industria.

Deskribapena

Debagoieneko industrian efizientzia energetikoa handitzeko eta autokontsumoa sustatzeko neurriak hartzea proposatzen da.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 7.1. Erregulazio bat sartzea, enpresetan energia-plan bat egon dadin.
- 7.2. Energia-kontsumo handiko enpresetan energia berriztagarriak sortzeko proiektuak martxan jartzeko finantzazioa. Finantzaketa hori Eusko Jaurlaritzaren edo Europar Batasunaren aldetik etor daiteke.
- 7.3. Energia-kontsumoa, beroaren aprobetxamendua eta energia berriztagarrien implementazioa berrikusteko ikuskapena.
- 7.4. Estandar bat sartzea, tokikoa izan daitekeena, enpresek energia-plangintza egokia egin dezaten.
- 7.5. Eguzki-energiatz gehien aprobetxa daitezkeen enpresen estalkietan instalazio fotovoltaikoak eta haien biltegitratze-sistemak eraikitzea sustatzea. Instalazio horiek enpresa bakoitzean edo industria-guneetan parteka daitezke.
- 7.6. Energia-eraginkortasuna handitzea, makinak modernizatuz, pabiloiak isolatuz, argiztapena berrituz eta beroa aprobetxatuz.
- 7.7. Ahal den kasu guztietan, energia fosilekin lan egiten duten makina guztiak makina elektrikoekin ordeztzea.
- 7.8. Logistika eta biltegitratze eraginkorra: logistika, garraio eta materialen biltegitratze politikak berrikus ditzaten eskatzea enpresei, CO2 emisioak nabarmen murrizteko.
- 7.9. Dagoeneko trantsizio energetikoa egiten ari diren enpresak beren esperientziak gainerako enpresekin partekatzera animatzea.
- 7.10. Unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan ikerketa bultzatzea industriaren elektrifikazioarekin, makineriaren eraginkortasun energetikoarekin, energia-iturri alternatiboekin eta horiekin lotutako beste gai batzuekin lotutako gaietan.
- 7.11. Behatokiak sortu, neutraltasunerako bidean zein bilakaera dagoen jakiteko.

Aurrekariak

- Garapen agentziak ETE-ei (enpresa txiki eta ertainak) laguntzak eskaintzen dizkie FV instalazioen eta eraginkortasunaren inguruko azterketa teknikoak egiteko.
- Eskualdeko Garapen Agentziak energia adierazleen azterketa eta jarraipena egin du eta eskura dago (argitaratuta).
- Enpresak ari dira eraginkortasun neurriak bultzatzen, hala nola, deskarbonizazio planak eta ekonomia zirkularreko proiektuak.
- Bestelako esperientziak badira: enpresa teiltatuak erabili herritarren autokontsumo partekatuko instalazioak bultzatzeko.
- Mondragon Unibertsitateak hainbat ikerketa lerro ditu martxan industria eta enpergiarekin lotuta.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Proposamen orokorra bideragarria da eta Europar Batasuneko araudiarekin lerrokatuta dago. Araudi horrek honako hau adierazten du: 2030erako emisioen murrizketa garbiak, gutxienez, % 55ekoa izan beharko du 1990eko mailekin alderatuta; 2040an berotegi-efektuko gasen isurketen % 90eko murrizketa garbia lortu beharko da; eta 2050erako neutraltasun klimatikoa erdietsi beharko da (zero igorpen garbi).

- 7.1. ekintzari dagokionez, ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten enpresek (250 langiletik gora izatea, besteak beste) energia-planak garatzeko legezko betebeharrak dute. 7.4. ekintzan aipatutakoarekin lotuta, interesgarritzat jo da 1. eta 2. irismeneko (kontsumoari lotutakoak) CO2 isurien murrizketa sustatzea, baita legezko derrigortasunik ez duten enpresetan eragitea ere.
- 7.2. ekintzari dagokionez, badira finantzaketa eskaintzen duten erakundeak. Eusko Jaurlaritzak ere baditu energia berriztagarriak sortzeko proiektuak garatzeko dirulaguntzak; gehienetan, inbertsioa egin ondoren ematen dira. Debagoieneko administrazio publikoak ez du horretarako eskumenik; hala ere, mandatu-organoak begi onez ikusi du eskualdean martxan dauden ekimenak aztertzea. Helburua litzateke horien sektoreartekotasuna eta eskalagarritasuna aztertzea, inbertsioak egiteko zailtasunak dituzten enpresetan eragin ahal izateko.
- 7.3. ekintzari dagokionez, mandatu-organoak ez du ikuskapenak egiteko eskumenik. Horren ordez, begi onez ikusi da praktika onak ezagutarazi eta balioan jartzea.
- 7.5. ekintza zuzenean lotzen da 1. eta 2. gomendioekin. Horrez gain, lotura zuzena du 7.2. ekintzan aipatzen den finantzazio iturriak lortzearekin.
- 7.6. ekintzan aipatzen den energia-eraginkortasunak lotura zuzena du inbertsioekin, hori dela eta 7.2. ekintzarekin bateratu daiteke.
- 7.7. ekintzari dagokionez, merkatuaren joerari erantzuten dio (Debagoieneko industria askoren bezeroek eskatuta) eta, aldi berean, baldintza zehatzak betetzen dituzten enpresentzat legezko betebeharra da.
- 7.8. ekintzari dagokionez, begi onez ikusi den arren, mandatu-organoaren eskumenez gandi dagoen proposamena da. Logistika arlo oso konplexua denez, funtsezkoa da hartzen diren erabakiak eraginkorrak izatea, denon onerako.
- 7.9., 7.10. eta 7.11. ekintzak begi onez ikusi dira.

Konpromisoak

- 7.1.K: Energia mahaiaren markoan lantzeko konpromisoa hartu da: 1) Martxan dauden ekimenak aztertu eta hauen sektoreartekotasuna eta eskalagarritasuna aztertzea, inbertsioak egiteko zailtasunak dituzten enpresetan eragiteko, 2) Ikerketa bultzatzea, 3) Enpresen arteko praktika onak ezagutarazi eta balioan jartzea, 4) Behatokia, 5) Enpresetan energia berriztagarrien sorrerarako proiektuak sustatzeko eskualdean dagoeneko dauden finantzazio lerroak aztertu, eta hala badagokio, interes baxuko finantzazio lerro proposamen berriak arakatzea.

Inplikaturako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

- **KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA:** Mankomunitatea.
- **GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:**
 - Enpresak.
 - Energia Berriztagarrien Komunitateak.

Epea

2026tik hasi eta hurrengo legealdia.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

PRESTAKUNTZARAKO ETA KONTZIENTZIA HARTZEKO HEZKUNTZA- METODOAK.

Ardatza

Energia berriztagarriak sortzeko baldintzak.

Gaia

Energia fotovoltaikoa.

Deskribapena

Gure gazteak hezteko eta energia-kontsumoaren eta energia berriztagarrien garapenaren garrantziaren berri emateko heziketa-metodoak sortzea, modu sortzailean eta funtzionalean: tailerrak, mintegiak, app-ak, softwarea, erronkak... Ez soilik ikastetxeentzat, baita etxetik bertatik modu sentikorragoan eta pertsonalagoan irakasteko ere.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 8.1. Sormen tailerrak.
- 8.2. Hezkuntza-software edo aplikazioak.
- 8.3. Proiektuaren parte izatera bultzatutako erronka-metodoak.
- 8.4. Debagoienean kontsumoa murrizteko eta energia berriak garatzeko adostuko diren ekintzak eta proiektuak transmititzeko gidak (eta positiboki eskainiko dizkigun ekintza eta proiektu bakoitza).

Aurrekariak

Hezkuntza zentroek energia gaiak kurikulumaren barruan eta proiektu zehatz gisa lantzen dituzte, baita Agenda 2030 markoaren barruan ere. Era berean, eskualdeko udalek eta D2030ek finantzatutako Debagoieneko Ikastetxeklik programa garatu da eskualdeko ikastetxeetan.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Hezkuntza zentroek bai kurikulumaren barruan bai kurikulumetik kanpo garatzen dituzte hainbat ekimen eta programa. Kurrikulum arloan udalek ez dute hezkuntza eskumenik.
- Eskualdeko energia mahaian ez ezik, beste mahaietan ere lantzea egoki ikusi du mandatu-organoak, lanketarako beste ildoetako bat izanik.

Konpromisoak

- 8.1.K: Eskualdeko mahaien egitekoetan, zehar lerro bezala, ildo hau ere lantzea, besteak beste:
 1. Ingurumen-hezkuntzan diharduten eragileen eta beste erakunde laguntzaile batzuen arteko gogoeta ahalbidetzea.
 2. Erronka energetiko eta klimatikoak, hezkuntzatik landu daitezkeen baliabideak aztertzea eta proposamenak eskuratzea.
 3. Hezkuntzako esperientziak, programa eta jarduerak, ikuspegi eraldatzaileekin partekatzea.
 4. Herritarren Batzarrak proposatutako jarduerak (sormen tailerrak, aplikazioak...) aztertzea.

Inplikatutako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA: Eskualdeko mahaiak.

GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:

- Hezkuntza eragileak (ikastetxeak, udal hezkuntza ordezkariak...)

Epea

2026tik hasi eta hurrengo legealdia.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

TOKIKO PRODUKTUEN KONTSUMOA BULTZATZEA ETA ZABALTZEA.

Ardatza

Kontsumo murrizketarako baldintzak sortzea.

Gaia

Tokiko kontsumoa sustatu eta hedatu.

Deskribapena

Gaur egungo kontsumoak energia-eskaera handiagora garamatza.

Tokiko merkatuan ekoizpen ekologikoko produktuak eta bigarren eskuko elementuak merkaturatzean, kontuan izan behar dugu tokiko jatorria izan behar dutela, karbono-emisioen eta energia-kontsumoaren inpaktua murrizteko.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 9.1. Tokiko merkatuen berri ematea komunikabideetan.
- 9.2. Azoka egiteko egokiak diren eremuak udalerrri bakoitzean.
- 9.3. Denetarik merkaturatzen den hileroko merkatura / feria. (arropa, oinetakoak, nekazaritzako tresnak, etab.). Herri osoak eta ingurukoek parte har dezakete (doan).
- 9.4. Udalek merkatuko espazioa arautzea.
- 9.5. Kate handiak irekitzeko jabegotzak mugatzea.
- 9.6. Merkatarientzako diru-laguntzak.
- 9.7. Espazio libreak eta doakoak. Erabilitako tokiagatik tasa ez kobratzea edo ordainketa erraztea.
- 9.8. Ekoizleei ekoizteko lur eskuragarriak ematea / eskaintzea. Erabilitako lurren ondoan dauden lurak, ekoizpen epe luzeagoak izan ditzaten.
- 9.9. Merkatariek finkatzen dituzten prezioak arautzea.
- 9.10. Karbono-aztarnaren etiketak erabilera kontsideratzea.
- 9.11. Tokiko zerbitzu-enpresetara jotzea tokiko ekonomia zirkularra garatzeko beste bitarteko batzuk bultzatzeko.

Aurrekariak

- Tokiko merkatu eta produktu salmenta puntuak badira: Herri azokak eta Aramaioko ekonomatoa, Ereindajan Arrasaten eta Bergaran.
- Tokian tokiko azoka bereziak egiten dira: 3. astekoa, Tomate Eguna, ...
- Merkataritza zein kontsumorako laguntzak badaude.
- Tokixan, eskualdean ekoizpena bultzatzeko ekimena martxan da eta hainbat eragilek parte hartzen dute.
- Basoak eta nekazaritzarako lurak erosteko deialdiak badaude (Bergaran).

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- 9.1., 9.2. eta 9.4. ekintzei dagokionez, ondo ikusi dira eta dagoeneko egiten dira. Hala ere, azoken eraginkortasuna neurtzea ezinbestekoa dela uste dute mandatu-organoko kideek, eta horren inguruko hausnarketa garatzea.
- 9.3. ekintzari dagokionez, dagoeneko egiten da.
- 9.5. ekintzari dagokionez, jabegotza mugatzea oso zaila ikusi da. Horregatik, azalera handiko komertzioak mugatzeko baliabide urbanistikoak erabiltzea ikusi da egokien.
- 9.7. ekintzari dagokionez, doakoa baino erraztea da bultzatu beharko litzatekeena.
- 9.8. ekintzari dagokionez, lur publikoen bankua eratzea ikusi da. Lur eremu pribatuen kasua berriz, lanketa egin beharko da proiektu agroekologiko eta kolektiboei lur sail horiek barneratzeko. Aipatu beharra dago Tokixan (bertako ekoizpena bultzatzeko hainbat eragileen arteko egitasmoa) dagoeneko martxan dagoela eta asmo honi erantzuten diola. Oñatitik haratago zabaltea izango litzateke asmoa.
- 9.9. ekintzari dagokionez, ezin da ontzat hartu, udalek ezin dituztelako merkataritza askeko prezioak arautu.
- 9.10. ekintzari dagokionez, karbono aztarnak etiketak ez dira egoki ikusten (dagoen baliabide eta daukan inpaktu aldetik ez txertatzea baloratu da).
- 9.11. ekintza egoki ikusi da, beti ere kontratazio legeak uzten duen neurrian.

Konpromisoak

- 9.1.K: Legeak ematen dituen aukerak eta, mugatzeak sor ditzakeen onurak eta kalteak aztertzeko konpromisoa hartu da.
- 9.2.K: Mandatu-organoak eskualde mailako elikadura mahaiaren artikulazioa sustatzeko konpromisoa hartu du. Mahaiaren helburu nagusiak honako hauek izango lirateke: a) Lehen sektorea erakargarri bihurtzea —profesional berriak erakartzeko— eta, aldi berean, martxan dauden ekimen eta estrategien koordinazioa zein bateratzea bermatzea; b) Lur publikoen bankua eratzea eta eremu pribatuaren azterketa egitea. Horretarako, Debagaraia Landa Garapen Elkartarekin eta Mankomunitatearekin elkarriketak abiatuko ditu mandatu-organoak.

Inplikatutako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA:

Mankomunitatea, Landa Garapen Elkartarekin elkarlanean.

GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:

- LGA.
- Bestelako eragileak.

Epea

- 9.1.K: 2026tik hasi eta hurrengo legealdia.
- 9.2.K: 2026 - 2028.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

INFORMAZIOA KOMUNIKABIDEEN BIDEZ.

Ardatza

Energia kontsumoa murrizteko baldintzak sortzea.
Neurriak.

Gaia

Eraldaketa.

Deskribapena

Ahalik eta jende gehienarengana iristeko modu bat da.

· Informazioa ezinbestekoa da kontzientziatzeko.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 10.1. Komunikabide mota guztiak:
- Kanal ofizialen sare sozialak.
 - Telebista.
 - Irratia.
 - Podcast.
 - Prensa idatzia.
- 10.2. Publizitatea (autobusak, kartelak, futbol zelaiak, farolak...). Adibidez, 10 urtean ezer egiten ez badugu horrela egongo gara, eta argazkiak jarri.
- 10.3. Komunikabideak espazio eta/edo denbora bat ematera behartzea.

Aurrekariak

Dagoeneko eskaintzen da informazioa hainbat komunikabidetan, tokikoetatik hasi eta eskala guztietaraino.

Erantzuna

- Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:
- Gomendio honetan jasotzen diren ekimenen batzuk iada abian daude, hala ere, gomendio horren ekarpenek lagundu egiten dute indarra non jarri eta egiten ari dena aberasten.
 - Komunikazioak gizartearen esparru desberdinetara iristeko duen indarra kontuan hartuta, ezinbestekoa izango da trantsizio-energetikoaren gaia zabaltzeko aintzat hartzea. Komunikazio estrategia bateratuaren beharra nabarmendu da, eta prozesuaren hurrengo faseetan garatzea irudikatu da.
 - 10.1. ekintzari dagokionez, ondo ikusi da aipatutako komunikazio bideak erabiltzea.
 - 10.2. ekintzan aipatzen den publizitate ereduari dagokionez, mandatu-organotik egokiago ikusi da herritarrengan konfiantza sortzen duten eta hurbiltasuna transmititzen duten estrategiak erabiltzea.
 - 10.3. ekintzari dagokionez, komunikabideak behartzea baino, hitzarmen bidezko kolaborazioak garatu daitezke, batez ere eskualdeko komunikabideekin.

Konpromisoak

10.1.K: Mandatu-organoak informazioari eta sentsibilizazioari izaera estrategikoa eman nahi dio. Ezinbesteko tresna da klima aldaketa eta trantsizio energetikoari aurre egiteko eta estrategikoa denez, horiek mantentzeko eta indartzeko ekimenak gauzatzeko konpromisoa hartu dute mandatu-organoa osatzen duten erakunde guztiek, ikusgarritasuna, komunikazioa eta presentzia zabaltzea, alegia. Beharrezkotzat jotzen da gizartea arlo honetan gehiago sentsibilizatzea eta, beraz, gizarte osoa inplikatzeko eragileei laguntzeko konpromisoak ezartzen.

Informazioa herritarren esku jartzeko asmoz egitasmo desberdinak jasotzen dituzten informazio-euskarri egokiak sortzen eta ikusgarritasuna ematen indar berezia jarriko du. Horregatik, mandatu-organoak etorkizunean eragile anitzak bilduko dituen energia mahaian ez ezik, mugikortasun eta elikadura mahaian komunikazio estrategia zehar lerro bezala txertatzeko proposamena egingo du.

Inplikaturako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.

KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA:

Mandatu-organoa osatzen duten erakundeak eta beste gomendioen erantzunetatik sortutako ekimenak gauzatzeko arduradunak.

GAUZAPENEAN PARTE HARTUKO DUTEN BESTE ERAGILEAK:

· Eskualdeko Komunikabideak.

Epea

2026tik hasi eta hurrengo legealdia.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

HIRI ATERPE KLIMATIKOAK SORTU.

Ardatza

Energia kontsumoa murrizteko baldintzak sortzea.
Neurriak.

Deskribapena

Aterpeak klimatikoak sortuz, oinezkoentzako bideak sustatu. Modu horretan, autoaren erabilera saihestuko da eta aire girotuaren erabilera murriztu, esaterako etxebizitzetan. Elementu natural hauen bidez, airearen freskatzea ahalbideratzen da.

**Herritarren Batzarrak
proposatutako
Ekintzak**

- 11.1. Herrietan zehar, berdeguneak bultzatu, ahal denean espezie autoktonoekin.
- 11.2. Herritarren partaidetza ziurtatu ideietan zein burutze lanetan.
- 11.3. Baratza urbanoak eta tokiko kontsumoa sustatu (eskoletako guneak probestu).
- 11.4. Plazaren azpian parking-ak dauden guneetan plaka fotovoltaikoak jarri, horrelako espazioetan landaretza naturala jarri ezin denean.

Aurrekariak

- Hainbat herritan badaude aterpe klimatikoak. Berdeguneak bultzatzeko planak daude eta herri ortuak ere badaude.
- Eskoriatzan, klima larritasunaren ondorioz herriko tenperaturen "azterketak" egin dira, porlanezko herri espazioak, berdeguneak eta abarrek. duten eragina neurtzeko.
- Aretxabaletan beste zuhaitz landaketa mota ari dira kontuan hartzen.
- Bergaran, farmazia eta tabernak aterpe klimatiko izateko (kontsumitu gabe bertan egoteko aukera bermatzeko) hitzarmenak garatzen ari dira.

Erantzuna

Proposamena ontzat eman da, jarraian agertzen diren ekarpen / aldaketekin:

- Babesgune klimatikoak klima-aldaketak eragindako muturreko tenperatura-egoeretan, batez ere zaurgarritasun-egoeran dagoen biztanleriari aterpea eskaintzen dioten gune publiko, pribatu zein doakoei egiten die erreferentzia. Babesgune horiek espazio irekiak (herriguneetakoak zein landa-eremuetakoak) edo eraikinak izan daitezke, baina betiere energia-iraunkortasuneko irizpideak bete behar dituzte.
- Babesgune klimatikoen sarea indartu beharko litzateke, jabetza pribatuko guneak ere aztertuz, esaterako elizak edota ostalaritza eta farmazia zerbitzuak, baita herrietatik kanpo dauden landa guneak ere.
- Fotovoltaikoen lanketa (1. eta 2. gomendioak) egiten denean horrelako irtenbideak (11.4. ekintza) kontuan hartzea proposatzen da.

Konpromisoak

- 11.1.K: Babesgune klimatikoen inguruan, aukerak zabaltzeko (jabetza pribatuak ere kontuan hartuz), daudenak identifikatzeko eta komunikazioa hobetzeko konpromisoa hartzen da.
- 11.2.K: Udaletako plan orokorrak edota mugikortasun-planak berritzeko unean, berdeguneak bultzatzeko, ahal den heinean espezie autoktonoak landatzeko asmoa, edota lorezaintza-eredu berrien inguruko hausnarketa txertatzeko konpromisoa hartzen da.

Inplikaturako eragileak

Mandatu-organoak konpromisoa bideratzeko ardura du.



KONPROMISOA GAUZATZEKO ARDURADUNA: Udalak.

Epea

- 11.1.K: 2026tik hasi eta hurrengo legealdia.
- 11.2.K: Udalen plangintzen arabera, dagokionean.

Baliabideak

Baliabide gehigarriak behar ditu.

PROZESUAREN SUSTATZAILEAK – MANDATU-ORGANOKO ERAKUNDEAK**BABESLEAK****PROZESUARI ATXIKIMENDUA ADIERAZI DIOTEN ERAKUNDEAK**

Arizmendi Ikastola · Bailara Industrial Network · Biolur Gipuzkoa · ELA · Emun · Ereindajan Arrasate · Goiena · LAB · Mondragon Unibertsitatea · Naturtzaindia · TMeLab.

Azkenik, Argitzenean parte hartu duten norbanako zein eragile eta laguntzaile guztien lana jarri nahi dugu balioan, horien parte hartzea ezinbestekoa izan baita prozesu hau burutu ahal izateko.



ARGITZEN

*Energia trantsizioaren
norabidea adosten*

argitzen.eus